

1971

1516ko seilua



El Correo Español, 1971-7-1

EL SELLO

Los libros y legajos comienzan en 1325 y acaban en 1792, nos dice Ugartechea. El primer documento es la carta auténtica, con el sello real de doña María Díaz de Haro, señora de Vizcaya, al pasar el señorío a ella por fallecimiento de don Diego López de Haro. Esta señora era tía del rey de Castilla, Alfonso XI. La carta fundacional es del 3 de noviembre de 1325. El actual escudo de Lequeitio es un mar con dos ballenas, una trainera con seis tripulantes, un castillo o iglesia y un árbol, parece roble con dos lobos. Sin embargo, Ugartechea, al andar en los viejos libros, ha encontrado un sello de cera pegado a un documento de 1516 en el que se ve a una gran ballena sobre las olas. Sobre la ballena hay una trainera con siete hombres. Encima, un gran círculo con un animal, que parece un lobo esbelto, y alrededor unas letras indescifrables. Parece ser que el actual alcalde de Lequeitio lo quiere mandar a Madrid a una casa especializada en reconstruir viejos documentos, para ver cómo era exactamente el sello de Lequeitio en 1516.

Lequeitio, cuna de cerebros

Gure lanak lantzean behin, ezuste edo sorpresak oparitzen dizkigu baina beti ez dira erregalu izaten. Tituluak asko promesten zuen, **seilurik zaharrena!**, baina non demontre zegoen —seilu guztiak neuzkan ikusita— eta zelán ote zen hainbeste urte paper artean ibili eta haren berririk ez izatea! Ez nekien zer egin, kolpe edo ez kolpe asuntoari, *to be or not to be*. A zelako dilema —eta tranpa—! Edozelan ere, damutu egingo nintzen: kolpe ezean, seilua aurkitzeko aukera ñimiño hura galduko nuelako eta kolpe eta aurkitu ezean —bazegoen beste aukerarik ala?— galduko nuena denbora mordoa izango zelako. Preso nengoen! Tira, hemen daukazue seilua (ez) aurkitzeko egin nituen ahaleginen kronika, seiluren historia gazi-goza edo trajikomikoa. Seilua Jose Miguel Ugartetxeak aurkitu zuenez, haren iloba Manuri eskatu nion laguntza eta osabaren apuntak bidali zizkidan: *"El más antiguo escudo municipal de cuantos he visto representados en los archivos municipales aparece en un sello de plomo², muy deteriorado, que legaliza ciertas fianzas que dieron ante la justicia ordinaria en*

1 Ez naiz ni aditua baina armarriek buruzko ikerketatxoa egin nuenean ez zitzaidan seilu hori agertu eta nire aurretik ibili ziren "adituek" ere ez zuten inoiz aipatu; zergatik ez zuen haren berri eman Iturrizak "Historia de Vizcaya" liburuan bera izan bazen dokumentu hori batu eta koadernatu zuena?

2 Ugartetxeak idazki honetan seilua berunezkoa zela dio, kazetariak, berriz, argizarizkoa. Ez da txikikeria.

julio de 1516 los maestros bachiller Francisco de Ibaseta y Fortún de Curruchiaga: una embarcación a remo tripulada por siete hombres, junto a una ballena, y encima un animal cuadrúpedo, probablemente lobo, encerrado en un círculo, todo ello rodeado de una leyenda ilegible".

Protagonisten datu berri honekin, urtea ezagutzen genuen ordurako, gai izan nintzen dokumentua aurkitzeko. Aspaldi transkribatuta daude Euskal Herriko Erdi Aroko dokumentu piloa, hain zuzen ere, baten batek dokumentua irakurri nahi badu hemen aurkituko du: *"Fuentes documentales medievales del País Vasco, Colección documental del archivo municipal de Lequeitio (1514-20)/ doc. 247"*.

Zuzen zebilen Ugartetxea, dokumentua **1516**koa zen eta Lekeitioko udalaren seilua zeraman (*pedia e requeria/ e pedio e requerio a su merced mandase a mi, el dicho escriuano, le diese todo ello sacado en limpio e sygnado e/ sellado con el sello de la dicha villa*). Zoritxarrez, azken orria moztuta zegoela zioen ohartxoan artean (cortado el último folio).

Moztuta zegoela jakitean zergatik ez nuen ikerketa utzi galdetuko diozue zeuen buruari. Esperantza (omen) delako galtzen azkenena, historialarien artean behintzat.

Horregatik moztutako orri hori seilua zeramana izango ez zelako esperantzan igo nintzen artxibora. Maite artxibozainak ez zeukan horren berririk, esperantzari fidea gehitu nion. Miraria behar nuen! Juan Ramon Iturrizak berrehun eta piko urte lehenago koadernatu zuen liburukotea, hain

zuzen ere bederatzigarrena (Registro 9), atera zidan. Zuen baimenarekin aurrera egingo dut askaera edo amaiera jakingo ez bazenute legez. Liburukotea zabaldu nuen eta dokumentua... egon bazegoen, ez zuen inork ostu.

Baina ez nuen nik somatzen seiluak uzten duen konkorrrik. Moztutako orrira heldu nintzen, ez zen azkena, bat baino ez zitzaidan geratzen. Azken orri horri buelta eman nion, hurrengo dokumentuan nengoen³. Hala ere, seilua aurkitu ez arren, hark utzitako arrastoa antzeman nuen, kontsola-zio saria. Fede kontuez ari garenez, Turingo Izara Santuarekin konparatuko dut gertatutakoa⁴: orriak, falta denaren

3 Ugartetxeak idazki honetan seilua berunezkoa zela dio, kazetariak, berriz, argizarizkoa. Ez da txikikeria.

4 Turingo Izara Santua aukeratu dut Lekeitioko Andra Mari Elizan haren fotokopia dugulako, hau da, fotokopiaren fotokopia, errespetu guztiaz diot. Derioko artxiboan aurkitu nuen dokumentua, luzetxoa da baina merezi du. Tituluan zioen: Copia relación de la procedencia y solemnidad con que se celebró en Turín, el contacto de la sabana santa de esta Villa con el auténtico e histórico sudario en que fue envuelto el sacratísimo cuerpo de Nuestro Señor

Antonio Navarro Larreategik titulu guztiak erakutsi ostean jarraitzen zuen: Certifico y hago fee, que oy lunes 4 de Mayo de 1620 a las 4 oras de la tarde (hau bai zehatza) habiendo traído en procesión el santísimo sudario con que nuestro Redentor fue embuelto en que está impresa la parte anterior y posterior de su santísimo cuerpo con las heridas de la corona, llagas y azotes y sangre. Subieron con él en un tablado cubierto y adornado de paños de seda y después de haberle mostrado al pueblo, y a la muchedumbre de gente extrangera, que concurrió le tendieron en una larga messa, y sobre él por manos del Serenísimo Cardenal Mauricio de Saboya, el Arzobispo de Turín, Obispos de Pavia, Verichi (Verici), Mondubi (Mondovi), Ibreá (Ivrea), Saluzo (Saluzzo) y Josan estando presentes los Serenísimos Duque de Saboya, y Victorio Príncipe de Piamonte, vestidos con sus mantos del Orden de San Mauricio y los Prelados con sus Mitras.

hurrengoak, izarak Jesukristoren gorpuarekin antzean, seiluaren traza, itxura gorde du. Miraritxo honekin konformatu beharko dugu, zer erremedio! Atzamarretatik txirrist egin digu seiluak.

Egia esateko, dokumentua hobeto bidaltzeko moztua izan bazen, ondo merezita dugu gertatutakoa. Ez du larritasuna arintzen lapurtu izanak ere, arduragabekeria erakutsiko luke, dokumentu hori ezagutzera eman zen unean zaharberritu eta gordea izan behar zuen eta⁵. Bolkanak sarritan erabiltzen zuen "*Lequeitio, cuna de cerebros*" leloa, urteak erakutsi didate ez zebilela gaizki.

Non ote da gure seilua? Are txarrago, ba ote da?

Pusieron estendida que ocupase las figuras de Christo un sudario de seda blanco, carmesí, traslado de ellas, de la misma forma, estatura y tamaño de la efigie de nuestro Redentor y yncados de Rodillas se detubo un espacio a petición y suplicación mía, que por particular merced que recivo de estos Príncipes, lo hicieron assi, y para que de ello conste y memoria de los venideros, de la presente firmada de mi nombre y sellada con mi sello en Turín el día y año dichos=

Antonio Navarro de la Rategui

La copia que precede, —beste fotokopia baten fotokopia— es fiel y literal, de la copia auténtica del original, —hau fotokopia— que existe en el paquete letra B de este archivo.

5 Azken ahalegina egin nuen eta kontu eta fakturen artean ibili nintzen badaezpada, fedea zer den! Badaezpada, orduak eta orduak ematen ditugu aurkitu nahi duguna aurkitu ezinik eta, sarritan, bestelakoak aurkitzen. Ez nuen fortunarik izan, ez nuen Madrileria edo beste nonbaitera bidali zen aipamenik aurkitu, behintzat 1971 eta hurrengo urteetan. Igual ez nuen ondo begiratu, esperantza...

